

BEGOÑA IZETA, GUZTIOK GATTUNK BATZORDEA

«Horrelako festa batean, ba al dago lekurik guztiontzat?»

Inklusibitatearen ingurukoa da zuen batzordea. Zergatik erabaki duzue kilometroak jaiaren zutoinetako bat izan behar duela inklusioak?

Kilometroak ikastolaren, herriaren, familiaren festa da eta, beraz, guztion festa izan behar du. Tartean zirkuitu bat eta erronka bat daudela, badirudi dinamika fisiko bat den neurrian egoera fisiko jakina duen jendeari zuzendua dagoela. Baina ikastolan eta herrian denetarik daukagu; gurpil aulkian daudenak, desgaitasunen bat dutenak, adinekoak... badago lekurik guztiontzat? Eta galdera horietatik abiatuta erabaki genuen zeharlerro bat landu behar genuela: Inklusibitatea. Kostatu zitzaigun kontzeptu honetara iristea. Bagenekien guztientzako jai bat egin nahi genuela, jendartearen aniztasuna kontuan hartuko zuena eta ideia horri

bueltaka-bueltaka iritsi ginen inklusibitateraino.

Gogoeta horretatik sortu dira Gipuzkoa inklusiboago bat egiteko dekalogoa eta manifestua.


Mahai gainean jartzen ahalegindu garen kontzeptua elkarmendekotasuna da. Gaitasun desberdinak ditugun gizakiak gara eta gaitasun horien arabera denok gara mendekoak. Eta hortik abiatuta paradigma aldaketa bat egin nahi dugu integraziotik inklusiora. Jendarteak fase desberdinak pasatu ditu pertsona guztiek, gaitasun desberdinak izanagatik, eskubide berdinak ditugula aitortzera iritsi arte. Eta horra iritsita, badirudi hitz politena integrazioa dela. Gu ez gaude konforme eta iruditzen zaigu integraziotik inklusibitatera pasatu behar dugula. Gu ez gara inor

beste norbait gurera integratzeko. Ze “beste hori” komunitate berdineko kidea da, jendarte bereko parte. Hura zurekin dago eta egin behar duzuna da aitortu bestea hor dagoela, eta jendarte mailan edozer antolatzen duzunean –bai lanean, bai eskolan eta baita festan ere–, kontuan izan guztiontzako modukoa izan behar duela. Edozer antolatzeko orduan hasiera-hasieratik eduki behar da buruan “denontzako” izan behar duelako ideia. Hemen sartzen da unibertsaltasunaren kontzeptua.

Ez dirudi erraza aisialdian eta festan inklusibitatea txertatzea.

Beste esparru zenbait pixkanaka martxan jartzen ari dira inklusioari dagokionez; lantokiak, eskolak, kaleak... baina, festa bat antolatzen dugunean kontuan hartzen ote dugu denek ezin dutela era berean parte hartu? Horregatik erronka handi bat abiatu genuen sentsibilizazioa bultzatzeko, bai jaiaren egunean bertan eta baita urtean zehar ere.

Jaiaren egunari dagokionez, kilometroen muinean zirkuitua dago. Berehala sortu zen zirkuitu egokitu bat egitearen proposamena. Baina gure kontzeptua inklusioa bada eta unibertsaltasuna nahi badugu, zirkuitu bat antolatu behar dugu denontzat. Saiatuko garena da guztiontzat izatea, horretan pentsatu dugu, baina ez da erraza, Usurbil herri aldapatsua delako. Aldapak aldapak dira eta hori ezin dugu aldatu, ezta zirkuituaren zati batzuk asfaltatu gabekoak izatea ere. Baina gutxienez informatu egin nahi izan dugu. Hartara, zirkuitu osoan informazio garbia dago aldapak dauden eta nolakoak diren esanez, guneak asfaltatuak diren edo belardiak diren esanez... eta horrez gain bada sarrera bat, Zubietatik datorrena, lau-laua dena. Horrez gain, seinaleak idatziz bakarrik izan beharrean piktogramak izango dira, guztiek ulertzeko modukoak. Janariaren inguruan ere egin dugu gogoeta. Hartara, salgai egongo diren izozkiak eta patatak glutenik gabekoak eta esne



Idoia ZABALETA | ARGAZKI PRESS

JEXUX AGIRRESAROBÉ, AUZOLANAZ

«Garrantzitsua da ez ahaztea ikastola auzolanetik sortu zela»

“Usurbilgo ikastolaren sorrera” ikus-entzunezkoa egin dute Jexux Agirresarobek eta Aitziber Elortzak. Auzolana zer den ulertzeko dokumental oso argigarria da, bere garaian Luberri ikastola izan zena (hasierako ikastola horixe zen) martxan jartzeko prozesua kontatzen baitu. Garai hartan proiektuan buru-belarri aritu zirenak dira dokumentalaren protagonistak; auzolanaren eta indar kolektiboaren sekretuak lehen pertsonen eta hizkuntza oso garbian kontatzen dituzten guraso, irakasle eta ikasleak.

«Aitziberrek eta biok askotan aipatzen genuen gure artean jendeak ahaztu samar zeukala garai batean Usurbilen ikastola nola sortu zen. Eta iruditzen zaigu ez dela komeni hori ahaztea, oso garrantzitsua baita nondik gatozen


jakitea», hasi da kontatzen Jexux Agirresarobe. Luberri ikastola herriko guraso kuadrilla batek jarri zuen martxan beren seme-alabek hezkuntza euskalduna eta bertakoa jaso zezaten. Apustu arriskutsua izan zen, dena kontra zutelako. Euskarazko irakaskuntza gauza berria zen, egiteko zegoena; traba ekonomikoak eta legearen aldekoak handiak ziren; ikastolek pedagogia erabat berritzailea zekarten, artean nolako emaitzak emango zituen ikusteko zegoena; ikuskatzaileak eta guardia zibilak edozein unetan agertzen ziren, eta isunak jartzen zituzten...

«Behar batek piztu zuen ikastolaren proiektua. Guraso haiek ikusten zuten zegoen eskola ez zela gure herriaren eskola, ez hizkuntzagatik ezta izaeragatik ere. Eta euskaldunok hain barruan

proteinarik gabekoak izango dira, denontzako modukoak. Gainera, Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioak antolatutako gune bat izango da, kirol egokitua bertatik bertara ezagutu eta probak egiteko.

Komun unibertsalaren proiektua ere hor dago.

Komun unibertsalaren prototipo batekin lanean ari dira Mondragon Unibertsitatean eta espero dugu jaiaren egunean ikusgai izatea horrelako komun bat. Finean, ohituta gaude neskentzako, mutilentzako eta gurpil aulkian doazenentzat komunak bereizita ikusten. Denok berdinak bagara, zentzugabe samarra ere bada komunera joateko orduan halako bereizketak egitea. Gurpil aulkian doazenez maiz esaten dute «gu hirugarren sexua gara» eta komun bereizketa hori baztertzaila gertatzen da. Horregatik babestu dugu komun unibertsalaren proiektua. Gainera, bat egiten dugu parekidetasunaren eta



Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

jasangarritasunaren printzipioekin, Kilometroak jaiaren beste bi zutabe garrantzitsu.

Erronka ere berezia izango da.

Ahalegin handia egin da erronkari

begira. Batetik, ikasle guztiek parte hartu dezakete eta denek ez dituzte proba berdinak egin beharko, beren gaitasunaren arabera izango da hori. Eta, gainera, probak ez dira izango abiadura, indarra, teknika eta halakoak neurtzen

dituztenak bakarrik, arreta, irudimena, zoria eta beste gauza batzuk ere garrantzitsuak izango dira. Eta beste berrikuntza finala izango da. Orain artean bi talde pasatzen ziren finalera baina aurten erronkan talde guztiek jokatu dute finala, 21 ikastolek. Guztien finala izango da.

Jaia egun batekoa da, baina inklusioaren inguruko gogoeta eta sentsibilizazioa epe luzeagoko helburua da, ezta?

Bai, eta horretan ari gara urte guztian. Hiru norabidetan ari gara; Udarregi ikastola, Usurbil herria eta Gipuzkoako lurraldea. Proiektu pedagogiko bat osatu dugu ibilbide inklusibo bat proposatuz. Orain, irailean, jarri da martxan proiektua ikastolan. Hartara, LHko ikasle guztiei ariketa sorta bat proposatuko zaie ibilbide inklusibo bat egin dezaten. Hortik txosten bat etorriko da galdera bati erantzun nahian: Irakasle bezala nola transmititu inklusioaren balioa ikastola eta ikastetxetan.

daukagun auzolana jarri zuten martxan. Finean, auzolana beharrak asetzeko modu bat da. Guraso haiek behar larria sentitu zuten beren seme-alabak hezteko beraiek hezi ez zituzten moduan; euskaraz eta euskaldun bezala. Eta behar horri erantzuteko hasi ziren lanean».

Dokumentalak oso modu zuzenean jasotzen du auzolanaren esentzia. «Nik txikitan bizi izan dut hori guztia. Gu Landaberrin ibiliak gara –Luberriren ondorengo fasea– eta gogoratzen naiz nola joaten ginen asteburuetan gurasoekin ikastolara. Gurasoek lana egiten zuten, hau garbitu eta hura konpondu, eta gu jolasean ibiltzen ginen. Bagenekien gurasoek ahalegina egin zutela guk ikastola izan genezan, baina egia da testigantza hauek jaso ondoren askoz kontzienteago garelako ahalegin horrekin».

Luberri ikastolaren proiektua dozenaren bat gurasok jarri zuten martxan. Garai hartan Usurbilen baziren eskola nazionala eta erlijiosoa eta herriar gehienek horietara bidaltzen zituzten seme-alabak. Ikastola gauza arraroa zen, berria, mesfidantza sortzen zuena, proiektu pedagogiko berritzailea zekarrena. Guraso haiek beren poltsikoetatik jarri zuten ikastolarako dirua eta, auzolanean, bakoitzak bere

ahaleginetik, eraiki zuten orain hain indartsu dagoen proiektua. Gaur egun ikastola da Usurbilen kaskoan dagoen aukera bakarra. «Garrantzitsua da nabarmentzea ikastola diru pribatuarekin jarri zela martxan, baina herriarentzako. Hori baino gauza publikoagorik ez dago», jarraitu du Agirresarobek.

«ETXEAN BEZALA SENTITZEN GINEN IKASTOLAN»

Dokumentalak ederki jasotzen duenez, Luberri ikastola ez zen bakarrik euskarazko irakaskuntza eskaintzen zuen eskola, garai hartan indarrean zeuden pedagogia moduak hankaz gora jarri zituen proiektua ere bazen. «Ikastolako oroitzapen oso onak dauzkut nik. Nik gogoratzen dut eremu askea zela ikastola, etxean bezala sentitzen ginela. Lurrean esertzen ginen, marraztu egiten genuen, gure gauzak kontatzen genituen... etxean sumatzen nuen izaera eta ikastolan sumatzen nuena berdinak ziren, eroso ginen, gure eskola zela sentitzen genuen erabat. Egia da, gainera, gurasoak oso inplikaturik zeudela proiektuan, beti zebiltzala ikastolaren bueltan eta konplizitate giro handia zegoen».

Giro berezi hori arnasten da oraindik Luberri ikastolaren proiektua martxan

jarri zutenen testigantzetan. Urteak joan dira, txikitasunean abiatu zuten proiektua asko indartu da, baina oraindik bizi-bizi dituzte garai haiek eta hunkitu egiten dira ordukoak gogoratzen dituztenean. «Oso hunkigarria izan da ikastolaren bultzatzaile izan zirenen testigantzak jasotzea. Egin zuten ahalegina oso bizirik daukate barruan, eta harro daude egin zutenaz. Dokumentala ikusi duen jende askok esan digu, era berean, hunkitu egin dela ikusterakoan».

Luberri ikastolaren berezitasun pedagogikoekin jarraituz, dokumentalak kontatzen du nola Zumetak Europatik ekarritako ideia berritzaile batzuen arabera antolatu zuten egurrezko jolastokia, «garai guztietako jolastoki kutunena», irakasleek esaten dutenez. «Nik gogoan daukat jolastoki hori; gogoratzen naiz hegazkin forma zeukan egur luze batean nola ibiltzen ginen jolasean. Baina, pentsa, guk ez genekien Zumetaren ideia izan zenik. Niretzat oso pozgarria izan da hori jakitea. Pentsa, Zumetak klaseak ematen zizkigun guri ikastolan! Zer-nolako luxua. Eta akordatzeko naiz behin Xabier Lete etorri zela guri hitzaldi bat ematera. Ni txikia nintzen eta gizon bizardun hari begira-begira egon nintzen», gogoratu du Jexux.

Gaur egungo begiradatik ez da erraza irudikatzea garai hartan gurasoek zer-nolako ahalegina egin zuten. Argigarria da, esaterako, dokumentalean guraso batek nola kontatzen duen Guardia Zibilak 5.000 pezetako isuna jartzen ziela haurrak oinez ikastolara bakarrik zihoazela ikusten bazuten. Zain egoten omen ziren, nondik mina egingo.

Agirresarobek eta Elortzak egindako dokumentala eskuragarri dago Usurbilgo zenbait dendatan. «Herrian emanaldi bat egin genuen eta herritarrek oso hunkituta atera ziren bertatik. Eta denek nabarmendu zuten dokumentala zabaltzeko beharra. Auzolanaren eredu garbia da ikastolaren sorrerako hori, eta horregatik gustatuko litzaidake zabaltzea».

KMK 2015ekin piztu da auzolana Usurbilen, eta Agirresaroberen iritziz denon mesedetan litzateke behin jaia amaituta ere, auzolanaren arima bizirik mantentzen asmatzea. «Askotan esaten dugu euskara dela euskaldun egiten gaituena. Baina hori baino gehiago da. Euskaldunok beste kultura eta bizimodu desberdin bat izan dugu, Piriniotar Zuzenbidea esaten zaiona. Eta hori auzolanean eta kolektibitatean oinarrituta dago. Gu hortik gatoz eta ez genuke ahaztu behar».